



EBALUAZIO-TXOSTENAREN LABURPEN EXEKUTIBOA
(HEDATZEKO DOKUMENTUA)

Mobilizazio sozialeko eta gizartean
eragiteko prozesuaren ebaluazioa
2016ko urtarrila

Ebaluazioaren sustapena: Garapenerako Lankidetzaren
Euskal Agentzia

Kanpoko lantaldea: **una** gestión y comunicación soc.
coop. peq.

Silvia Piris Lecuona
Monika Plazaola Sojo

www.unagestion.com
una@unagestion.com
691 071 296 · 691 232 816
Plaza Barria 5, · 3. ezk., · 3. dptu.
48005 Bilbo

Aurkibidea

1. SARRERA.....	3
1.1. Ebaluazioaren xedea.....	3
1.2. Ebaluatutako prozesuaren deskribapena.....	4
2. EBALUAZIO-PROZESUAREN LABURPEN EXEKUTIBOA.....	5
2.1. Dimentsioen aplikazioari buruzko balorazio orokorrak ...	5
2.2. Gomendioak.....	7
2.2.1. Eragin-prozesuak eta Dimentsioak, oro har.....	7
2.2.2. Dimentsio politiko-etikoa.....	7
2.2.3. Dimentsio pedagogikoa.....	9
2.2.4. Kultura(arteko) dimentsioa.....	9

1. SARRERA

1.1. Ebaluazioaren xedea

Dokumentu honetan, "Mobilizazio sozialeko eta gizartean eragiteko prozesuaren ebaluazioa" dokumentuaren emaitza garrantzitsuenak laburbildu ditugu; ebaluazio hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) agindu zuen eta **una** gestión y comunicación enpresak egin.

Prozesu horren bitartez, Garapenerako Hezkuntzaren hiru dimentsioak gizartean eragiteko eta mobilizazio sozialeko prozesuetan txertatzeari buruzko ondorioak atera dira. Zehazki, honako emaitza hauek lortzera bideratu da azterketa:

- Garapenerako Hezkuntzaren Euskal Agentziak Plan Zuzendarian zehaztu dituen Garapenerako Hezkuntzaren hiru dimentsioak gizartean eragiteko eta mobilizazio sozialeko prozesuetan nola aplikatzen diren baloratzea.
- Eragin-prozesuak garatzen dituzten GGKEek Garapenerako Hezkuntzaren hiru dimentsioak praktikan jartzeko garaian izaten dituzten indarrak eta ahuleziak identifikatzea.
- Dimentsio bakoitza abiaraztea ahalbidetu duten tresnak eta mekanismoak ikusgai egitea.

Emaitza horiek lortzeko, ebaluazioa bi faseko prozesutzat proposatu dugu:

Lehen fasea: eragiteko eta mobilizazioko esperientzia zehatz bat aztertu da; hain zuzen ere, Mugarik Gabe (MG) erakundeak "*Enfrentamos todas las Violencias Machistas, Patriarkaturik Gabe Denok Jabe*" kanpainaren barruan garatutako prozesua.

Bigarren fasea: Mugarik Gabe erakundearen prozesua aztertu ostean ateratako ondorioetan oinarrituta, dimentsioak aplikatzeari buruzko gakoak identifikatu dira, eta gizartean eragiteko eta mobilizazio sozialeko prozesuak garatzen dituzten beste GGKE batzuekin kontrastatu dira, prozesu horietan orokorrak izan daitezkeen indarrak eta erronkak identifikatze aldera.

Bi faseetan bildutako informazioa sistematizatu eta aztertu egin da ondorioak ateratzeko eta, ondorio horiek,aldi berean, txosten honetan aurkezten ari garen balorazioak egiteko abiapuntu izan dira.

1.2. Ebaluatutako prozesuaren deskribapena

Ebaluazio honetan, Mugarik Gabe erakundearen "*Enfrentamos todas las Violencias Machistas, Patriarkaturik Gabe Denok Jabe*" kanpaina, batik bat, aztertu dugu; kanpaina hori EAEko eta Latinoamerikako erakunde feministekin batera garatu zuen. Kanpainaren helburua zera da, indarkeria matxisten aniztasuna eta agente guztien (erakundeak, komunikabideak eta gizartea, oro har) erantzukizuna agerian uztea, ordaina eman eta desagerraraztearren. Kanpaina bera prozesutzat har daiteke (une jakin batzuetan finantzaketa publikoa jasotzen duela), baina ebaluazioari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2011ko, 2012ko eta 2014ko diru-laguntzen deialdietara (GSLF) aurkeztutako hiru proiektu hartu ditugu; hona hemen hiru proiektuak:

- a) Patriarkaturik Gabe Denok Jabe kanpaina, II. fasea
- b) Emakumeen Eskubideen Auzitegiaren ikaspenak
- c) Recuperando Historias de Mujeres para la defensa de los Derechos de las Mujeres (Emakumeen historiak berreskuratzen emakumeen eskubideak defendatzeko)

Lehenengo proiektuan ("*Enfrentamos todas las Violencias Machistas. Patriarkaturik gabe denok jabe*" kanpaina, II. fasea, 2011), 2010eko ekainean abiarazitako prozesuari jarraipena eman zitzaion; prozesu horren bitartez hezkuntza-prozesu eraldatzailea txertatu nahi da, *Auzitegi Sinbolikoa - Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia Viena+20, Euskalherria 2013-* sortzea izanik azken helburu.

Mugimendu feministarekin eta gizarteko hainbat eragilerekin batera (komunikabideak, erakundeak, GGKEak, gizarte-mugimenduak eta herritarrak, oro har), indarkeria matxistak giza eskubideen urraketa sistemiko eta sistemiko direla ikusaraztea lortu nahi da, baita eragozpen ere, herrialde guztietan ekonomia, gizartea eta demokrazia garatzeko (arazoa tokiko ikuspegi batetik eta ikuspegi orokor batetik ulertuta; Mugarik Gabe erakundeak *indarkerien continuum*-a esaten dio).

Ebaluatutako bigarren proiektuan (*Emakumeen Eskubideen Auzitegiaren ikaspenak, 2012*) *Auzitegiaren esperientzia ebaluatu eta sistematizatu da, ikuspegi feminista eta kulturartekotik begiratuta. Emakumeen Eskubideen*

Nazioarteko Auzitegia Viena+20, Euskalherria sortzeko eta gauzatzeko prozesua bera eta prozesuaren inpaktua ebaluatzea da proiektuaren asmoa.

Azkenik, aztertu dugun hirugarren proiektua *-Recuperando Historias de Mujeres para la defensa de los Derechos de las Mujeres (Emakumeen historiak berreskuratzen emakumeen eskubideak defendatzeko)*, 2014- Mugarik Gabe erakundearen estrategia batean sartzen da, hain zuzen ere, emakumeen eskubideen defentsan laguntzeko strategiaren barruan. Estrategia horretan, eskubide-urraketak pairatu dituzten Latinoamerikako eta Europako emakumeen bizimoduaren historiak biltzen dituen ikerketa bat egitea proposatu dute, eta historia horietan oinarrituta, urraketa horien guztien egiturazko kausak aztertzen dituen dokumentua idaztea.

2. EBALUAZIO-PROZESUAREN LABURPEN EXEKUTIBOA

Ebaluazio-prozesuan jasotako informazioa prozesatu eta interpretatu ostean ateratako ondorioak biltzen dira laburpen exekutiboan. Halaber, ebaluatutako prozesuan eta, oro har, gizartean eragiteko eta mobilizazio sozialeko prozesuetan gaketat hartutako zenbait elementuri buruzko gomendioak ere aurki daitezke.

2.1. Garapenerako Hezkuntzaren dimentsioak aplikatzeari buruzko balorazio orokorrak

- Garapenerako Hezkuntzaren ikusmoldean aldaketa gertatu dela ikusten da ebaluatutako prozesuetan oinarrituta. Ebaluazio hau egiten hitzen bidez lagundu diguten erakundeek aspaldi ekion zioten Gizartea Eraldatzeko Hezkuntza lortzeko bideari; bide horretan aurrera egiteak zera dakar, besteak beste, proiektuak gizarte-mugimenduen agendetara egokitzea eta Ipar-Hego kontzeptua benetan alde batera uztea.
- Aldaketa hori dela-eta, GGKEek eta gizarte-mugimenduek beren lan egiteko modua elkarri egokitu behar izan diote, harreman horizontal batean lotzeko aukera emango dieten espazio komunak aurkitzeko. GGKEetan, egoera berriak eragin duen alderdi garrantzitsuenetako bat da

gizarte-mugimenduekiko militantzia-konpromisoa areagotu izana, dela haien agendetan dela jardueretan parte hartuta.

- GGKEen eta gizarte-mugimenduen arteko loturaren indarra harreman luze batean oinarritzen da, proiektu jakin baten iraupena gaindituta. Aztertutako datuen arabera, bide horri ekin dioten erakundeek lankidetzarako gune bat eraikitzen dute, proiektuen aitzindari, eta proiektuak amaitutakoan ere irauin egiten du gune horrek.
- Horri dagokionez, GGKEen militantzia-ahalmenak finkatzen du harremanaren sendotasuna. Aztertu dugun Mugarik Gabe erakundearen prozesuaren kasuan, mugimendu feministak behin baino gehiagotan adierazi du bere militantziaguneetan GGKEak egotea erabakigarria izan dela iradokitako prozesuan parte hartzeko erabakia hartzeari dagokionez.
- Erakundeek estrategia asko zehaztu dituzte eragin-lanerako. Alde batetik, horrelako prozesuetan askotariko eragileen parte-hartzea beharrezkoa dela diote denek, kasu askotan protagonista direlako eraldaketarako subjektu estrategiko diren aldetik. Subjektu horiekin sare-lanaren inguruan antolatzea da xedea. Horretarako, topaguneak egokitu eta zaindu egin behar dira, enpatian eta konfiantzan oinarritutako harreman horizontalak sortuta eta sare horiek apustu politiko bihurtuta, jaso daitezkeen diru-laguntzen gainera.
- Harremanekin bukatzeko, harremanak finkatzeko prozesu horretan erakundeek garrantzia izan baduten arren, alderdi pertsonala are garrantzitsuagoa dela egiaztatu dugu.
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak proposatu dituen moduan, honako hau berrets dezakegu dimentsioei dagokienez, oro har: aurkeztu beharreko proiektu zehatza lantzeko fasean hobeto funtzionatzen dute, proiektua biltzen duen estrategia orokorragoa (erakundearen beraren hausnarketekin bat etorriko litzatekeena) identifikatzeko fasean baino.
- GLEAren dimentsioak interesgarriak direla diote, oro har, erakunde guztiek, baina erakunde gehienek esan

dutenez, bakoitzak bere planteamenduak erabiltzen ditu, ildoak eta ikuspegiei dagokienez, indartu nahi dituzten prozesuak diseinatzeko garaian. Horren ondorioz, erakundeek beren diskurtso eta hausnarketak egokitu egin behar izaten dituzte proiektuen formularioetan eskatzen denaren arabera, deialdietan aurkeztu behar dituztenean.

- Dimentsio politiko-etikoa da garrantzitsua, funtsezkoa eragin-prozesuetan. Dimentsio hori ulertzen eta partekatzen da gehien, zeren, azken batean, eragin-prozesuen helburua errealitatean eraldaketa politikoa eragitea baita, justizia, ekitate eta ongizate gehiago lortzearren.
- Dimentsio pedagogikoari dagokionez, konplexua dela onartzen dute, batik bat, tresna eta dinamika zehatzak aplikatzea baino zerbait gehiago dela interpretatzen baldin bada. Zenbait kasutan, prozesuak oso zehaztuta egoten dira alderdi politikoan, helburu oso argiak dituztela, baina gero ez dute potentzial guztia hedatzen ez delako ikuspegi pedagogikoa aintzat hartu.
- Kulturarteko dimentsioan daude, zalantzarik gabe, zailtasun eta ulermen-arazo gehien; kulturartekotasuna zer den argitu behar dela aipatu da.
- Azkenik, eragin politikoko prozesuen hartzaile izaten diren kolektiboak dagokienez, jada kontzientziatuta dauden kolektiboetatik haratago iristea oso zaila dela esan dezakegu. Hori horrela dela, zenbait erakundeek jada antolatuta dauden kolektiboen gaitasunak indartzera bideratzen dute ahalegina, kolektibo zabalago batera iristera baino gehiago.

2.2. Gomendioak

2.4.1. Eragin-prozesuak eta Dimentsioak, oro har

- Erakundeek beren estrategia propioak izaten dituzte, eta eraginari dagokionez, beren proposamenetan gizarte-mugimenduen (feminista, nekazariena, tokiko erakundeak, komunikabide alternatiboak...) agendei babesa ematea aintzat hartzen dute. Bi faktore horiek abiapuntu hartuta, gure ustez ezinbestekoa da hausnarketarako gune zabal bat berreskuratzea, Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzari buruz

hausnartzeko. Gure ustez, GLEAk berak ahalbidetu dezake gune hori eta, modu batera edo bestera, Garapenerako Hezkuntzarekin lotutako jarduerak egiten dituzten erakunde, mugimendu eta pertsonak bildu beharko lituzke.

- Halaber, kolektibo hori prestakuntzarako gune izatea ere oso garrantzitsua da gure ustez, dimentsioen norainokoari eta edukiari dagokienez, Plan Zuzendariak mugimenduen agendekin bateratzeari dagokionez, eta proiektuen logika gizartea eraldatzeko prozesu zabalagoekin uztartzeari dagokionez.
- GGKEek abiarazten dituzten prozesuen helburuak betetzeko tresna eta neurri zehatzei dagokienez, hausnarketa pedagogikorako guneak sortzea proposatu da, betiere erabiltzen diren tresna eta metodologiak gizartea eraldatzeko hezkuntzaren planteamendu pedagogikoarekiko koherenteak izan daitezzen.

2.4.2. Dimentsio politikoa:

- Eragin politikoa ulertzeko modu asko daudenez, eragin politikoaren definizio zabal bat finkatzea proposatu dugu, ikuspegi guztiak (tokiko erakundeetan eta nazioarteko erakundeetan izaten den eragina gizarte-mugimenduak indartzea eragiteko modutzat eta abar) txertatu ahal izateko. Aldi berean, gure ustez oso garrantzitsua da erakundeen eragin-estrategia orokor bat sortzeko premiari balioa ematea; hartara, haien proiektuak eraldaketa-helburuetara bideratuko dira, ekimen zehatzen batuketa gaindituta.
- Kasu gehienetan, eragin-prozesuetan hartzaile izaten den publikoa lehendik sentsibilizatuta dauden herritarrak izan ohi direla egiaztatu dugu, eta jada kontzientziazatuta dauden kolektiboetatik haratago iritsi nahi denean oztopoak egon ohi direla. Hortaz, proiektuen xede-biztanleriari buruzko aurreikuspenak murriztera bideratutako hausnarketa bat egin behar delakoan gaude. Gure ustez, jada kontzientziazatuta dauden kolektiboak indartzea oso garrantzitsua da gizartea eraldatzeko, kontzientzia-aldaketa bezainbeste, oro har; eta estrategia hori proiektuen benetako aukerekin bat dator, hein handiagoan.

- Prozesua aztertuta ondorioztatu dugunez, askotariko erakundeen artean parte hartzeko gune zabalak eraiki daitezke eta, arrazoitutako estrategia batekin, bakoitzak prozesuari ekarpenak egiteko bere tokia aurkitzen du. Gure ustez, adibide honek eredugarri izan beharko luke beste erakunde batzuentzat eta askotariko eragileen eta, bereziki, gizarte-mugimenduen parte-hartzea biltzen duten proiektuak egitera animatu beharko lituzke.
- Esandakoarekin lotura duen eta, gure ustez, eragin handia duen elementu bat zera da, erakunde desberdinen artean sare egonkorrak antolatzea, proiektu jakin bat baino haratago. Sare horiek eraikitzeak, halaber, topaguneak egokitu eta zaintzea ere badakar, enpatian eta konfiantzan oinarritutako harreman horizontalak sortuta eta sare horiek apustu politiko bihurtuta, jaso daitezkeen diru-laguntzen gainera.
- Gizarte-mugimenduen parte-hartzeari dagokionez, erakundeak mugimenduetara hurbil daitezen gomendatu dugu, baina militantziaz abiatuta, bien arteko lotura arian-arian indartzeko modua den aldetik. Esan beharrik ez dago, gure ustez, hurbilketa instrumentala estrategia okerra dela, soilik GGKEek sortutako proiektu puntualetarako laguntza ezinbestekoa izanik. Mugimendu feministaren eta GGKEen arteko loturaren indar nagusiak -prozesu honetan detektatu ditugunak- erakundearen konpromisoarekin lotuta daude; hain zuzen ere, erakundeak mugimendu feministaren jardueretik eta agendetik alde aurretik hartutako konpromisoarekin.
- Erakundeek balioa eman diote hausnarketarako eta eraikuntza kolektiborako gune bat izateari. Ildo beretik, diskurtsoak eratzeko prozesuen alde egitea gomendatu dugu, helburutzat hartuta, eta ez ekintzarako estrategiatzat hartuta. Hartara, erakundeak indartzeko dinamikak, diskurtso sendoak eraikitzeako dinamikak eta konfiantza eragiteko dinamikak sor daitezke. Hori, aldi berean, sareak sortzeko eta agenda komunak eratzeko lagungarri da, eraginaren potentziala areagotzen duela.

2.4.3. Dimentsio pedagogikoa

- Garapenerako Hezkuntzako prozesu guztietan elementu nagusitzat parte-hartzea aipatzen da, oro har. Horri

dagokionez, gomendioa zera da, ildo berari eustea eta prozesu bakoitzean parte hartzen duten erakunde edo pertsonen parte hartzeko estrategia aldeztu aurretik pentsatzea. Hartara, argi eta garbi jakin ahal izango da zer espero den kolektibo bakoitzarengandik eta bakoitzak zer nolako ekarpenak egingo dizkion prozesu orokorrari (estrategikoak, operatiboak, hedapenekoak eta abar). Halaber, parte-hartzeari buruzko estrategia horrek proiektua gaintzea komeni da, loturari eusteko bide bat aurreikusita helburu komunak, argiak eta denboran zehaztuak finkatuz.

- Horizontaltasunak ez dakar lidergorik eza. Horregatik, gure ustez garrantzitsua da erakundeek hausnarketa egitea prozesuetan zer nolako lidergo mota izango duten aztertzeko. Horri dagokionez, lidergoak ez dira ukatu behar, gure ustez; aitzitik, inplikaturako erakunde guztiei aukera berdintasunean parte hartzeko eta jabetzeko bidea eskaini eta eraikiko dieten lidergoak sustatu behar dira.
- Komunikazioari dagokionez, honako hau gomendatu dugu: alde batetik, eragina gizarte-mugimendua indartzearekin lotzen den kasuetan, kolektiboen arteko komunikazio-prozesuak indartzea da garrantzitsua, loturetan sakonduta eta hizkuntza nahiz jakintza partekatuak eraikita. Beste alde batetik, sentsibilizazio-inpaktu zabala lortu nahi duten proiektuen kasuan, komunikabideekiko estrategia zehatz bat finkatuta izatea da garrantzitsua; estrategia horrek honako elementu hauek izan beharko ditu: pertsona arduratsuak, baliabideak, eta informazio-agendaren eta hizkuntza masiboen gaineko ezagutza.
- Azkenik, ikuspegi afektibo-emozionalak zer esan nahi duen argitzeko hausnarketa-prozesu bati ekitea proposatu dugu. Guztiok bat gatz ikuspegi hori txertatzea garrantzitsua dela, baina gure ustez, behar-beharrezkoa da alderdi emozionala hausnarketa kognitiboekin txertatzeko estrategia bat izatea, berdintasunean oinarrituta.

2.4.4. Kultura(arteko) dimentsioa

- Zailtasun handieneko dimentsioa izaki, erakundeekin prestakuntza-prozesu bat egitea garrantzitsua dela uste dugu, kultura(artekotasuna) zer den partekatu ahal

izateko, dela Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziatik, dela erakundeetatik, eta zeharkako Hegoaldeko Ikuspegiarekin zertan datorren bat eta zer alde dituen zehazteko. Kultura(artekotasuna)ren ikuspegi zabala jada txertatuta duten erakundeen lanari balioa emateko ere baliagarri izan daiteke gunea.

- Zenbait erakundek murrizketaren zentzua hartzen diote dimentsio honi; erakunde horien eskaera abiapuntu hartuta, elkarguneen ikuspegitik begiratzen duen eta tokikoa, eskualdekoa eta globala (errealitatearen azterketa, agendak, proposamenak, subjektuak...) egituratzen dituen ikuspuntua txertatzea proposatu dugu. Horrek esan nahi du aniztasunetik lan egin behar dela zentzu guztietan, zapalkuntza edo desoreka guztiak lotzen dituzten azterketak eginda eta diskurtso nahiz agendak desberdinen artean eratuta, betiere esparrutzat hartuta ikuspegi internazionalistatik egindako errealitate globalaren azterketa historiko eta kritikoa.